**BAZTAN BALLEKO UDALA**
AYUNTAMIENTO DEL NOBLE VALLE Y
UNIVERSIDAD DE BAZTAN (Nafarroa - Navarra)

MEREZIMENDU TURISTIKOARI BRONTZEZKO SARIA
PLACA DE BRONCE AL MERITO TURISTICO

HERRIAK - LUGARES: ELIZONDO (BALLEKO UDALETXEA)
ALMANDOZ, ANIZ, ARIZKUN, ARRAIOZ, AZPILKUETA, BERROETA,
ZIGA, ELBETE, ERRATZU, GARTZAIN, IRURITA, LEKAROZ
AMAIUR / MAYA eta ORONOZ.

## ERDIZ, BELATE ETA LIZARTZUKO NEKAZARIENDAKO OHARRA

**Erdiz, Belate eta Lizartzuko nekazariei bilkura deia egin zitzaien martxoaren 28an Baztango Udaletxean bildu eta ondoko kontu hauetaz solasteko:**

- **Zezenak bazkalekuetan.**
- **Lanak bazkalekuetan.**
- **Lepokoak behiendako.**
- **Galde-eskeak.**

**Egun hartan 30 nekazari etorri ziren bilerarat eta ondoko erabakiak hartu ziren:**

**Zezenak bazkalekuetan: laz erabaki ziren irizpideak aipatu ziren eta berdin segituko da. Hauek dira irizpideak:**

**Aspinak uzten dituen zezenak 2 dira. Bat Erdizen azienda sartzen duen nekazari batek dauka eta bertzea Belaten azienda sartzen duen nekazari batek. Ikusita Aspinak ez dituela zezen gehiago utziko eta nekazariek bazkalekuetan zezenak egotea nahi dutela, ondoko erabakiak adostu ziren:**

1. **Erdizen 4 zezen sartzen ahalko dira eta Belaten 3 zezen.**

## *NOTA PARA LOS GANADEROS DE ERDIZ, BELATE Y LIZARTZU*

***Se convocó a los ganaderos de Erdiz, Belate y Lizartzu a una reunión el 28 de marzo en el Ayuntamiento de Baztan para tratar los siguientes temas:***

- ***Toros en los pastizales.***
- ***Trabajos en los pastiza-les.***
- ***Collares para las vacas.***
- ***Ruegos y preguntas.***

***A la reunión acudieron 30 ganaderos y se tomaron los siguientes acuerdos:***

***Toros en los pastizales: Se citaron los criterios que se acordaron el año pasado. Los criterios son los siguientes:***

***Aspina ha cedido 2 toros. Uno de ellos lo tiene un ganadero que introduce el ganado en Erdiz, y el otro un ganadero que lleva el ganado a Belate. Viendo que Aspina no cederá ningún toro más y que los ganaderos quieren que los toros estén en los pastizales, se tomaron los siguientes acuerdos:***

1. ***En Erdiz se podrán introducir 4 toros y en Belate 3.***

2. Aspinakoak 2 bakarrik direnez, partikularrek beren zezenak (3 Erdizen eta 2 Belaten) sartzen ahalko dituzte.
3. Zezenak bazkalekuetan sartzeko interesa duten nekazariek Udalari jakinarazi beharko diote maiatzaren 17a baino lehen.
4. Pirenaika arrazako zezenek lehentasuna izango dute. Zezen pirenaikoekin ez bada kupoa betetzen bertze arrazetako zezenak sartzen ahalko dira.
5. Maiatzaren 21ean zezena sartzeko interesa duten nekazarien zerrenda begiratuko da eta sartzen ahal direnak baino zezen gehiago apuntatu badira haien artean zozketa eginen da.
6. Iaztik Aspinako zezenak dauzkaten nekazariei 12 behiren saria debalde uzten zaie urte osoan zezena zaintzearen truke.
7. Zezen partikularrak sartzen dituzten nekazariei 6 behiren saria debalde utziko zaie.

*2. Como los de Aspina son solo 2, los particulares podrán llevar sus toros (3 a erdiz y 2 a Belate).*
*3. Los ganaderos interesados en introducir los toros en los pastizales lo tendrán que comunicar al Ayuntamiento antes del 17 de mayo.*
*4. Tendrán prioridad los toros de raza Pirenáica. Si no se rellena el cupo con toros de raza Pirenáica, se podrán introducir toros de otras razas.*
*5. El día 21 de mayo se procederá a examinar la lista de los ganaderos que están interesados en introducir toros, y en caso de que se hayan apuntado más toros de los que se pueden introducir, se hará un sorteo entre ellos.*
*6. Desde el año pasado a los ganaderos que tienen toros de Aspina se les cede gratuitamente la cuota de 12 vacas a cambio de ocuparse todo el año del toro.*
*7. A los ganaderos que introduzcan toros particulares se les cederá gratuitamente la cuota de seis vacas.*

Lanak bazkalekuetan: Iaz egin zen bezala, aurten ere bazkalekuetako iskindegiak errepastuko dira eta mineral ekologikoa hedatuko da. Bertzalde, nekazariek hainbat eskari egin zituzten, hala nola Artesiaga eta Lizartzuko korletan zahorra botatzea, Artesiagako

*Trabajos en los pastizales: Como se hizo el año pasado, este año también se repasará el cerramiento y se echará mineral ecológico. Además, han sido numerosas las peticiones de los ganaderos: echar* todo uno *en las mangas o corralizas de Artesiaga y Lizartzu, acondicionar la pista*

**korlearen sarrerako pista moldatzea, bazkalekuetako askak errepasatzea, Altzaldeko ateka errepasatzea...**

**Akitzeko aipatu, Pitzamarreko sarreran korle bat egiteko aukera eztabaidatu zela eta Udaletik aztertuko zela erantzun zen. Dena dela, Udaletik oroitarazi zen Nafarroako Gobernuak nekazal azpiegituretarako diru-laguntzak kendu zituela eta lan guzti hauen egiteak ahalegin ekonomiko handia dakartela.**

**<u>Lepokoak behiendako:</u>**
**Iaz egin zen bileran, nekazarien eskaeretako bat, behiendako lepokoak ahalbidetzea izan zen. Hala bada, Udalak, aurten behiak lepokoak jarrita sartzeko aukera izanen dela baieztatu zuen. Horretarako, Udalak, hainbat lepoko erosi ditu eta aurten behiak bazkalekuetan sartzeko bi modu izanen dira: beti bezala su-marka emanda edo lepokoak jarrita. LEPOKOAK NAHI DITUZUENOK, FABOREZ JAKINARAZI UDALARI MAIATZAREN 5A BAINO LEHEN!!! Lepokoak debalde emanen dira eta azienda bazkalekuetatik ateratzean Udaletxera bueltan ekarri beharko dira.**

**<u>Galde-eskeak:</u> Atal hunten**

***de la entrada a la manga de Artesiaga, repasar los abrevaderos de los pastizales, repasar el portillo de Altzalde...***
***Finalmente, decir que se debatió la posibilidad de constuir una manga en la entrada a Pitzamar y se concluyó que el Ayuntamiento estudiaría el tema. Aun así, desde el Ayuntamiento se recordó que el Gobierno de Navarra retiró las ayudas a las infraestructuras ganaderas y la realización de todos esos trabajos suponen un esfuerzo económico grande.***

***<u>Collares para las vacas:</u> En la reunión celebrada el año pasado, una de las solicitudes de los ganaderso fue la provisión de collares para el ganado. Así pues, se afirmó que este año las vacas podrían entrar con el collar puesto. Para ello, el Ayuntamiento ha comprado numerosos collares y este año habrá dos modos de que las vacas entren en los pastizales: como de costumbre, con la marca de fuego, o con el collar puesto. ¡LOS QUE DESEÉIS COLLARES COMUNICARLO EN EL AYUNTAMIENTO, POR FAVOR, ANTES DEL 5 DE MAYO!***
***Los collares se darán gratuitamente y habrán de devolverse al Ayuntamiento al sacar el ganado de los pastizales.***

***<u>Ruegos y preguntas</u>: En este puto***

**Belateko zohikaztegiaz (turberaz) solastu zen batez ere. Udaletik adierazi zen, iaz Nafarroako Gobernuko Ingurumen saileko arduradunekin bilera bat egin zela. Bilera hartan, Baztango Udaletik, Belateko nekazariekin bilera bat egin zela aipatu zitzaien eta eskatu egin zitzaien zohikaztegiaren iskindegia behar den bezala jartzeko. Ikusita iskindegiarekin arazoak izan direla, aurten berriz ere bilera bat eginen da eta iskindegia berritzeaz gain, belar-sastrakak garbitzeko lanak ere egiteko eskatuko zaie.**

***se trató principalmente el tema de la turbera de Belate. Se expone desde el Ayuntamiento que el año pasado se celebró una reunión con los responsables del Departamento de Medio Ambiente del Gobierno de Navarra. En dicho encuentro el Ayuntamiento informó de la realización de una reunión con los ganaderos y se les solicitó que colocaran un cerramiento en condiciones alrededor de la turbera. Viendo que este año ha vuelto a haber problemas, se les volverá a solicitar una reunión y se les pedirá que renueven el cerramiento y realicen labores de desbroce.***

Baztango Udaleko mendi, nekazaritza eta ingurugiro zinegotzia
*Concejal de Medio Ambiente, Ganadería y Montes*

Jon Elizetxe Bidegarai